



Iturria: Araceli Arizaga

ERROMERIXA EGUNA

Ekainak 7, zapatua

11:00etan salda eta txorixua Plaza Barrixan.

12:00etan Ezozira igoera kalejiran, trikitalari eta txistulariekin.

12:30etatik 14:00etara erromeria Ezoziko Plazan.

Tartean, "ZPEIZ MUKAKI" lapurtar dantzarien saio berezia eta Larrain Dantza.

14:00etan bazkaria.

17:00etatik aurrera Erromeria TAPIA ETA LETURIArekin.

Tartean, "ZPEIZ MUKAKI"koen beste saio bat eta Larrain Dantza herrikoia.

- *Bazkaria: norberak eraman behar du. Mahaiak eta aulkiak prest egongo dira. Lekua erreserbatzeko, Iratxo Goxodendan, Arranon, Gaztelupe tabernan edo Batzokian izena eman beharko da.*

BASARRITAR JANTZITA ETORRI!!

Antolatzaileak:



Soraluzeko
Euskal Jai
Batzordea

Laguntzailea:



- **Kultura:** Erromeria eguna eta Ezoziko jaiak asteburuan
- **Kirola:** Mendi taldeak Pirinioetara irteera antolatu du

soraluzeko
hamabostekaria **179.** alea
2008ko ekainaren 6an

pil-pilean



IÑAKI DE MIGUEL

**Egurrezko monumentu
zaharrak berritzen
jardundakoa**

Zalantza **Prestakuntza praktikoa**

Motibazio eza **Ikasketa + Lana**

Ezegonkortasuna **Lanean txertatzea**

Frustrazioa **Kalitatezko enplegua**

Enpresak sortzea

ARMERIA ESKOLAn
ondorengoekin gidatzen
zaitugu

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK
- INFORMATIKA

IZENA EMATEA:
Ekainaren 2tik 13arte
Matrikulazioa
Ekainaren 30etik Uztailaren 4arte

Eta ibilbidearen amaieran
titulatu bakoitzeko
2 lan-eskaintza

Isasi, 36 - 20600 Eibar
Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

eteo
ETEO, KOOP. E.

www.eps.mondragon.edu
www.eteo.mondragon.edu

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2008-2009

Izenematea
Ekainaren 2tik 13ra

ESKAINNTZA AKADEMIKOA

| MGEP | ETEO |
|------------------------------------------------|-----------------------------------------|
| • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak | • Administrazioa eta Finantzak |
| • Informatika Sistemen Administrazioa | • Idazkaritza |
| • Informatika Aplikazioen Garapena | • Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna |
| • Proiektu Mekanikoen Garapena | • Nazioarteko Merkataritza |
| • Mekanizazio Bidezko Produktzioa | |
| • Industri Ekipoaren Mantenimendua | |

Lanerako gertu!

UDaleKU iBILTariXAk 2008

Soraluzeko inguruak
era dibertigarrixan ezagutzeko...

uztailak 15 - 18
Izen ematea: Eskolan



JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2008

ARAUAK:

- "2008 Soraluzeko jaiak" ipini behar du.
- Gaia: herriarekin lotutakoa.
- Nahi adina kolore erabili.
- 33cm zabaleran eta 47 cm luzeran.
- Gizonezko eta emakumezko kopuru bera (ageri badira).
- Euskarri gogorrean aurkeztu.

NOIZ ETA NON AURKEZTU:

Ekainaren 20a baino lehen, Udaletxeko bulegoetan.

SARIAK:

300 euro irabazleari.
100 euroko akzesita.



Soraluzeko Udaleko
Kultura Batzordea



**UBANE MADERA****MIKEL SANTIAGO**

POLITIKARIEN BENETAKO INTERESAK AGERIAN

Zurekin berba egin nuen azkenengo alditik hona gauzak zela aldatu diren ikusita, horretaz jardutea proposatu nahi dizut. Izan ere, haserre samar nabil politikariekin. Uste dut ez naizela bakarria, oraingo astean Pasaiaiko udaletxean (eta azkenaldian gure inguruko beste askotan, tartean Plazentzian) bizitako tentsio-uneekerakustenduten moduan. Martxoan idatzi genuen azkena. Isaias Carrascoren hilketa gertatu berri, zentsura mozioak aurkeztu beharra (ezinbestekoa, batzuen ustez) zen orduan lehentasun bakarria. Ez zuten hala egin. Maniobra arrarobaten bitartez, iragarri zuten etikoak izeneko mozioak aurkeztu behar zituztela lehenengo.

Atzo, oraindik mozio etikoak eztabaidatzen jarraitzen zuten, kasu horretan, Urretxun. Bestalde atzo, sozialistek iragarri zuten hasi behar dutela prozesua, Arrasaten, Pasaian eta Errenterian zentsura mozioak gauzatzeko.

Galdetzen dut nik: zer irabazi dute mozio etikoekin? Zentsura mozioei dagokienez, etikaren eta gizatasunaren izenean horrenbeste zarata eta gero, hiru herri horietan bakarrik aurkeztu behar dituzte? Zergatik ez hasieran esan zuten moduan EAEk gutxiengoan gobernatzen duen udal guztietan? Neuk esango dizuet: hiru herri horietan bigarren indarra direlako eta zentsura mozioen bitartez alkatetza lortuko dutela uste dutelako. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.



Zer irabazi dute mozio etikoekin?

Ubane Madera

Antzerki mediatikoaren ostean, zain gaude.

Mikel Santiago

Aupa Ubane, Espero dut nirekin haserre ez ibiltzea, e? Berbetan jardun ginen azken alditik gauza dexente gertatu da eta normala iruditzen zait jendea politikaz kokoteraino egotea.

Isaias Carrascoren erahilketa gaitzesgarriaren ostean zurrumbilo batek harrrapatu gaitu guztiok.

Mozio "etikoak" planteatu ziren lehenengo, EAJk Arrasaten egun batean gauza bat esan eta hurrengoan kontrakoari eustea zuritzeko. Hori izan zen mozio horren jatorria, eta PSEekin adostu zuten, zuk diozun moduan alkatetzei begira. Horien emaitzaren arabera, ondorio batzuk etorriko zirela ere iragarri zitzaigun. Eta gu, herrian, antzerki mediatikoaren ostean, oraindik zain.

Sozialistak alkatetza lor dezaketen herrietara begira daude. Gurean EAJk, PSEk eta PPKk babestu zuten mozioa. Ez digu inork azalduko orain zer gertatuko den? Badirudi EAJri dagokiola azalpenak ematea, hiruretatik indar politiko bozkatuena denez gero. Baina EAJ ere isilik, Gipuzku Buru Batzarraren agindua zain.

Ez daukat erantzunik egiten dituzun galderentzat. Ez dut ulertzen jarrera politiko batzuen ondorioz herri kudeaketan eragin nahi izatea. Mozioak ez dira etikak bultzatutakoak izan, politikak baizik. Eta horrela ez goaz ondo. Helburu politikoak lortzeko indarkeria guztiz gaitzesgarria da nire iritziz, baina baita indarkeria hori beste helburu batzuk lortzeko aitzakia moduan erabiltzea ere. 🌀

Goguan hartzeko

Araoak bilatu, topatu, diagnostiko faltsua egin eta okerreko konponbideak aplikatzearen artea da politika.

Groucho Marx, aktore estatubatuarra.



GUTUNAK

Gutunak bidaltzeko, kexak edo eskerrak emateko, berriren bat kontatzeko, argazkiak bidaltzeko...

pilpilean@euskalnet.net

943 75 13 04

(utzi mezua)

Ion Murgizu Pinturak
 MARGOKETA OROKORREAN
 Empapelatuak
 Estukoak
 Fatxadak
 Eskilarak eta patioak
 Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
 Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
 T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

Kontulan Aholkularitza S.L.
 Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarateak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

Juan Mari
 arraindegia
 Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
 20590 Soraluze
 T. 943 75 24 40



Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarateak ez du bere gain hartzen aldiakari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik

Maider Gabilondo
Myanmarreko diktaduria

Myanmarren diktaduria daguala be enteratu gara zikloia dala eta. Hau da hau, orain arte diktaduria bakarrik Kuban eta Iraken zeguala uste ginuan. Bueno, Iraken orain ez, Saddam Husein kendu zebenetik, demokrazia dago, ezta? Txinan be, olinpiadak dirala eta jakin dogu Budisten egoera, Somalian piratak darella... Baina Myanmarren zentratuko naiz.

Gizajuak zikloi bat pasatu bihar izan dabe, munduak jakiteko 1962tik Junta Militarrak gobernatuta, hainbat eskubide zibil eta politiko zanpatzen dirala. Militarrak herritarrei behartutako lanak eragitten dotsez obra edo plantazio publikuetan, eta minoria etniko nahiz budistak sarri jasotzen dittue gobernuan erasuak. Myanmar 40 urtian Asiako herrialderik aberatsena izatetik, pobriena izatera pasatu da.

Hainbat sufrimendu pairatzen dittue hango herritarrak nazioartian laguntzarik jaso bare. Myanmarrek ez dauka petroleorik, baina Tailandia eta Laosekin batera munduko opio produktore eta heroína txuri fabrikatzailearik haundixena da. Ba ete dauka horrek zerikusirik nazioartiak ezikusixana egitteko?

Nondik zatozte eta nora zoazte?

Lapurdi eta Baxe Nafarroako dantzariak gara eta deitzen diguten leku guztietara joaten gara. Bi urte daramatzagu taldearekin. Gipuzkoa eta Bizkaian asko ibiliak gara, eta gaintzeko probintzietan ere bai.

Izena bezain xelebrea da zuen ikuskizuna?

Xelebrea... taldekide asko gara eta norbera den bezelakoa da. Bakoitzaren izaera desberdinekin osatzen dugu taldea eta xelebrequeriak egiten ditugu, bai.

80.hamarkadako kantuekin, euskal dantzei astindu ederra ematen diezue. Nola uztartzen dira?

Ia kasualitatez izan zen. Taldeko musikariak "sarri-sarri" abestia jotzen ari zirela, makil dantza egiten hasi ginen eta konturatu ginen ondo ematen zuela. Gero beste dantza batzuekin probatu genuen eta "La Polla", "Kortatu" eta beste musika batzuekin dantza egiten dugu.

Banakua egiteko ze doinu erabiltzen duzue?

Banakua betiko musikarekin egiten dugu, baina dantza baino gehiago, bakoitzak bere tontakeria pertsonala egiteko aukera izaten dugu.

((ENTZUTEKUAK))

Zpeiz Mukaki

Lapurdiko euskal dantzari modernoak



Zpeiz Mukakiko dantzariak EHZ jaialdian egindako saioan.

Umoreak euskal seriotasunari erronka.

Folklore tradizio moduan mantentzen da eta Iparraldean aspertuta gaude beti berdinkantzen eta dantzatzen. Sorkuntza beharrezkoa da. Umorea sartzen dugu gure ikuskizunean, inguruan dagoen jendeak ondo pasadezan eta parte hartzera gonbidatzen ditugu.

Animatzen dira ikusleak zuekin dantzara?

Hasieran agian ez, baina giroa berotu ahala, hasten dira gurekin batera dantzatzen.

Gonak janzten dituzue, zuen taldean neskari ez dagoelako?

Gonak umorearekin lotuta daude. Gainera udan dantza egiteko prakekin baino hobeto moldatzen gara. Nesken kontua; festetatik elkar ezagutzen dugun lagunak gara eta elkarrekin dantzatzen dugu. Neskak ez dira animatu izan. ☺

Euskal dantzetan sorkuntza beharrezkoa da.

TXURRUKA
JATETXEA

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

Hnos. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Energiari buruzko proposamenak egin dituzte ikasleek Udalbatzarrean



Eskolako Agenda 21aren barruan, Udalbatzar berezia egin zuten DBHko ikasleek Jose Luis Arizaga alkatearekin, Roke Akizu alkateordearekin eta Iker Aldazabal zinegotziarekin. Proposamen zehatzak eta konpromisoak aurkeztu zituzten ikasleek energiaren inguruan, ikastetxe-

ko zein herriko diagnostikoan oinarrituta.

Proposamenekin bat Udaleko ordezkariak

Proposamenen artean honako hauek aurkeztu zituzten: energiari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea, eraikin publikoetan eta argiztapenean eguzki plakak jartzeko aukerak aztertzea, gabonetako argiak ez jartzea, kontsumo baxuko bonbilla erabiltzea eta sentsore sistemak jartzea.

Udal ordezkariak ikasleei erantzun zieten, proposamenekin bat eginez eta jadanik martxan daudenak azalduz; esate baterako, kale argiztapenari buruz eginda dagoen azterketa eta etxe berrietan energia berriztagarrien derrigorrezko erabilera. ☺

Arratoiak Ezoz Bidean



Ezoz Bideko etxeetan, Mendiola industrialdera garageak dituzten inguruetan, arratoiak dabilta. Estolda batzuk zaharkituta daude eta bertatik irtetzen dira, bereziki, auzokoek katuentzat botatzen duten janaria jatera. Bizilagun batzuk salatu dute egoera eta konponbidea eskatu nahi diote Udalari.

PSE-EEren kritika ANV eta EAren hitzarmenari

Soraluzeko PSE-EEren iritziz "adar jotzea" eta "demagogia merkea" izan da Udal Gobernuak (ANV eta EA) kaleratutako azken komunikatua. PSE-EEren ustez, "biktimitasmoa areagotu nahi dute, zentsura mozio hipotetiko baten aurkezpeneren aurrean". ANVri galdetzen dio ze elkarbizitza lezio eman ditzakeen "persona baten hilketa kondenatu ez eta justifikatzen duenak". Udal Gobernuari, gardentasun, errespetu eta aniztasun falta egotzi die PSE-EEK.

Ondasun Higiezinaren gaineko zergak

Udalak jakinarazi du 2008ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren borondatezko epealdiko kobrantza kanpaina abian dela, ekainaren 30era bitartean. Honi buruzko informazioa jasotzeko, Udaleko bulegoetara jo daiteke.

Ehundaka motorzale

Euriak ez zituen motorzaleak uxatu eta ehundaka lagun batu ziren herriz herriko ibilaldia egiteko. Zapatuko autoen erakustaldia eta kontzertuak jendetsuak izan ziren.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Euriak eragindakoak



Azken egunetako euriteek ez dute kalte nabarmenik eragin herrian, baina zapatu gauen erreka ikusgarria jeitsi zen Etxaburuetan behera Plaza Zaharrerantz.

Lanpostuen gaineko balorazioa onartu du Udalbatzarrak

Aho batez onartu zuen Udalbatzarrak Udaletxeko lanpostuen gainean egin den balorazio tekniko. Horrekin batera, plantilla organikoa aldatzeko proposamena mahaigainean geratu zen, EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko 6 botoekin, EAren abstentzioarekin eta ANVren aurkako 2 botoekin. Bertan, hiru lanpostu berri sartzea proposatzen da: kultura eta euskara teknikariarena, gizarte laguntzailearena eta ludotekako teknikariarena. "Gaur egun lanpostu horiek badaude, baina ez daude plantillan sartuta, eta aldaketa honek herriko benetako egoera islatuko luke", adierazi du Jose Luis Arizaga alkateak.

Mahaster River Arranoan

Musika kontzertuak eskaintzen hasiko dira Arrano taberna eta elkartea. Ekainaren 15ean lehenengo emanaldia izango da, Mahaster River Bergarako hirukote akustikoaren eskutik, 19:00etan.

Alkatea babesteko agerraldia egin dute zenbait herritarrek



Berrehun lagun inguru batu ziren zapatuan Plaza Barrixan Jose Luis Arizaga "Txipi" alkateari babesa azaltzeko, etor daitekeen zentsura mozio baten aurrean. Herritarrek hauteskundeetan azaldu zuten aldaketa nahiari muzin ez egiteko eskatu zuten bertaratutakoek. "Eus-

kai herriko egoera politikoaren irakurketa koiunturalak ezin dira herriak aukeratutako norabidearen aurka jotzeko erabili", gaineratu zuten. Gaur egun dauden Udal Gobernua eta alkatea mantentzearen alde azaldu ziren, "Soraluze berri bat erakitzen jarraitzeko". 🗳️

Euskaraz Bai! astea

Pil-pilean Euskara Elkar-teak euskararen inguruko hainbat ekitaldi antolatu ditu ekainaren 12tik 14ra bitartean Udaleko Euskara Batzordearen laguntzarekin.

Ekainaren 12an, eguna:

Kontseiluaren X. Urteurrenaren bideoa, 20:00etan Udaleko Batzar Aretoan.

Ekainaren 13an, barixakua:

Frontoietan euskaraz. ("Soraluze euskaraz bizi gara" kartela jarriko da Kiroldegiko eta San Andresko frontoian)


Ekainaren 14an, zapatua :

10:30ean "Jakitetik Erabiltzera" Jardunaldiak, Udaleko Batzar Aretoan (Planean parte hartzen diharduten 26 elkarteetako ordezkariak parte



hartuko dute.) 13:00etan Ziuertagiri banaketa ibiltaria, Plaza Barrixan. 16:00etan Euskararen aldeko murla, Plaza Barrixan. 🗳️

Aurtengo ziuertagiria eskuz esku pasatuko dio elkarte batek besteari, herriko kaleetan antxitxika



IÑAKI DE MIGUEL, ERRESTAURATZAILEA

Egurrezko monumentu zaharrak berritzen jardundakoa

Muskizen berritu zuen burdinola baten maketa erakutsi eta azalpen zehatzak emanaz egin digu ongi etorria. Txillida, Oteiza eta hainbaten arte abstraktuaz eta eskulturez duen iritzi kritikoaz ere jardun du, errestauratzaile ibilbidea azaldu bitartean.

Zure ofiziuua zein izan da?

Ajustadoria. Ajustadore ikasten hasi nintzan Sacian hamazortzi urtekin, Lino Alberdi maisu nebala, eta lau urtian egon nintzan. Handik gero Eibarren, trokelista be bai, eta azkenengo Soraluzen (kooperatiban).

Tallarrian jardun aurretik, ibiltzen zinan egurrekin?

Ezta sekula be. Nestor Mendizabalek arosterixia zekan Gabolatzen eta haura laguna neban nik. Zapatutan eta udako egun luzetan hara juaten nintzan, eta gustatu egin jatan. Lan asko eukitzen zeban eta laguntzen hasi nintzan. 30 urte inguru nekazen ordurako. Gero uztarri eta idi txikixak egitten hasi nintzan.

Zela sortu jatzun Plazentziako eliz ataixa barritzeko aukeria?

Soraluzen lanian nenguala enkargaua etorri jatan. Esan zostan eze, “hi, Felix Turkua etorri dok taxisakin eta Plaentxiara juan bihok, Udaletxera. Alemanen bat egon bihar dok”. Orduan Alberto Lersundi zan alkatia, eta harek azaldu zostan zela eliz ataixa konpontzeko asmotan zebizen eta Gustavo Kraemer Coelleri egin zotsela enkargua.

Eta zuri zetako deittu zotsuen?

Herriko semeren bat nahi zebalako harek laguntzaile moduan. Hitzekin fixatzen ez zala eta probia egin zostan. Teilatuko zati bat hartu eta berdina egitteko eskatu zostan. Nere eskuak zela erantzuten zeben, begixak zela ikusten, zela sentitzen neban jakin nahi zeban. Balekua jaso nebanian ekin gontsan lanari.

Zerekin hasi zinaten?

Maketa bat egin genduan eta Igartuanian, ferretexan egon zan, herrixari egin nahi genduan


Nekazal artia zer dan erakutsi zostan alemanak.

7 erreportaia

erakusteko. "Horrekin herri guztia dominatuko dogu!" esaten zeban. Pare bat urtian jardun genduan lanian.

Lan zaila izan zan?

Bai. Egurra lehengua lagatzen zan baina leku askotan pusketak falta ziran. Egur zikua bihar izaten zan, haritza. Gero enkolatu egin bihar izaten ziran pusketak, uda partian. Han bakarrikan egonda gainera, norberak pentzatu bihar izaten dau zela lan egin.



Iñaki, eliz atariko egurra lantzen.

Ze egur gustatzen jatzu zuri?

Gaztainia ona da lanerako, biguna eta iraunkorra. Haritzak mobimentu gehixago dauka. Arkazia berriz gaiztua.

Zertzuk erakutsi zotsuzen alemanak?

Eliz ataiko tailla hori nekazal artia zala azaldu zoztan. Horrek esan nahi dau zati batzuk beste batzuk baino luziaguak, zabalaguak... izaten dirala, asimetrikuak. Arte ederretako katedratikua zan, kimikua, biologua, eta 5 hizkuntza zekixazen. Eliz ataixak herri osuak baino balore haundixagua zekala esaten zeban.

30 urtekin hasi nintzan egurrakin.



Koldo Mitxelena zanandako gurditxo bat eginda nago.



ELIZ ATARIKO MAKETA: "Egin doten lanik polittentako bat da, berezku bano 20 aldiz txikixagua."

Harrezkero zertzuk barritu dozuz?

Eliz ataixan inauguraziñua ordu-rako, Bergarako Agarre garaixa barritzen hasitta nenguan. 200-300 urtian inok ez zeban holako lanik egin eta pieza asko falta ziran. Ertzillako garaixa (Bizkaian) be barritu neban, Lekeittioko eliz ataixa be bai, Muskizko burdinola bat... Lan zailak izan ziran.

Enkargu berezirik egin izan dozu?

Bai. Antxon Oregik Koldo Mitxelena hizkuntzalarixari botila bat erregalatu nahi zotsan eta harendako egurrezko burdi txiki bat egin notsan. Saldu egin izan dittut lan txiki batzuk eta harripatu be egin dostez.

Egurrian eduki dozun maisurik haundina zein izan da?

Gehixen ikusi dotena, Mendizabal; ebanista eta armaixo kontuan ona. Basarri arotz moduan, Elgetako Arraozko Sebastian oso ona zan.

Inori erakutsi dotsazu?

Ez. Nik ikasittakua erakusten hasten banaiz eta lana egin bihar baldin badot, denporia galtzia da. ☺

AGARREKO GARAIA: XVI. mendekoa da. Artoa, garia, fruta eta haragia gordetzeko erabiltzen ziren.



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Ze pentzatzten jatzu hurrengo eguneko pilula doan jasotzia?

Ekainetik aurrera hurrengo eguneko pilula deitutakoa dohain eskuratu ahal izango da.

NORA ARIZAGA
Ikaslia



Ondo pentzatzten jata. Susto bat eduki ezkerro... komeni da dohainik izatia, betela garestixa izaten da eta. Gutxiago arduratzeko arriskua egon leike, baina neurrixa egokixa da.

JOSUNE EGAÑA
Ikaslia



Oso ondo. Aurrerapen bat da. Gehixen bat gaztiendako izaten da eta gastua litzake. Zentzudunak izan biharko ginake eta antisorgailuak erabiltzeko beldurrik ez eduki. Kondoia dohainik balira, hobe.

KONTXI DE CASTRO
Dendarixa



Oso ondo. Segurtasuna emongo dotse, baina gaztiak arduratsuak dira eta gurasuok be informaziñua emon biharra daukagu. Nahi ez daben hardunadirik ez eukitzeko aukeria izango dabe.

ETXI DEZA
Especialista



Ondo iruditzen jata hola helburua daukana dohainik izatia. Ez dot uste deskontrolatzeko arriskurik daganik egoki erabiltzen baldin bada.

KOMIKIXA



EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

Santa Ana kalea
20870 SORALUZE
T. 943 75 13 83

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Sorgin dantzarako ensaioak



San Juan bezperan egingo den jai-rako sorgin dantza ikastaroa antolatu du Pil-pileanek. Saioak ekainaren 17an eta 19an egingo dira, iluntziko 19:00etan frontoian.

Udalekuak uztaileko

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako udalekuak antolatu ditu Pil-pileanek uztailearen 15etik 18ra. Udaleku ibiltariak izango dira; herriko mendi inguruak ezagutu eta ekintza dibertigarrietan parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek. Euskaraz bizi, gure kultura ezagutu, eta elkarkidetzan eta ingurumenarekin harreman zuzenaz gozatzeko aukera izango dute. Ikastetxeetan eman daiteke izena, ekainaren 18a baino lehen. Informazio gehiagorako: pilpilean@euskalnet.net eta 660 12 70 12.

Ezoziko Jaiak ospatuko dira asteburuan

Euskal Jaietako Erromeria Egunarekin bat egingo ospatuko dira Ezoziko jaiak, ekaineko bigarren astebukaeran, ohikoa den moduan.

Zapatuan, hilak 7, Tapia eta Leturia, "Zpeiz Mukaki" lapurdiko dantzariak, dultzaineroak, Larrain dantza eta trikitixarekin egun pasa egingo da. Domekan, eguadi 12etan Larreategi anai-arrebak trikitilariak joko dute eta 12:30ean meza egingo da. Ondoren herri kirolen erakustaldia; Arana anaiak trontzan eta emakumeak harri jasotzen eta trontzan. Armendi jatetxean bazkaria egin ostean, umeentzat zezen txikiak eta pottokak izango dira arratsaldean plazan eta



opariak banatuko dizkiete. Bolo txapelketa 18:30ean jokatuko da. Lehenengoak garaikurra eta 90 euroko saria jasoko du, 2.ak garaikurra eta 60 euro, 3.ak 30 euro eta 4.ak sorpresa. 🍀



Jokin Telleriaren margolana irabazle

Kale Margoketako Lehiaketan 28 parte hartzaile izan ziren. Helduen mailan 1. Jokin Telleria, 2. Rikardo Azkargorta, 3. Juan Berrospe eta 4. Esteban Oroz geratu ziren. Soraluzetarraren saria Agustin Jauntsaratssek jaso zuen. Haurren artean, Silvia Loscos, Asier Martinez de Alcocer eta Xabier Jauntsarats izan ziren sarituak.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing

Disenirua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Zegama-Aizkorri maratoian hiru soraluzetar izan ziren lasterka




6 ordutik beherako denbora egin zuten hiru korrikalari soraluzetarrek, domekan egin zen Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Zigor Alberdi, Iñaki Ruiz eta Xabier Lijok 42 km-ko ibilbidea egin zuten lokatza eta labankada artean. Soraluzetar asko hurbildu zen Urbia alde-
ra lasterketa ikusi eta animoak ematera.

Hona sailkapena:

| Postua | Izena | Denbora |
|--------|------------------------|---------|
| 85 | Zigor Alberdi Ezenarro | 5:09:13 |
| 184 | Iñaki Ruiz Arana | 5:39:40 |
| 206 | Xabier Lijo Perez | 5:50:04 |

Irteera Pirinioetara mendi taldetik



E kainaren 28 eta 29ko aste-
bukaerarako irteera anto-
latu du Soraluzeko Mendi Tal-
deak. Larunbat goizean Aisara
joango dira autobusez; Aspe
tontorra igo eta Lizarako aterpe-
txeanostatu hartuko dute. Dome-
kan Bisaurin tontorra igoko dute.
Irteeraren prezioa 65 eurokoa da

bazkideentzat, eta 75ekoa bazki-
de ez direnentzat. Izena emateko,
kutzako **21010062160121871321**
kontuan sartu berhar da dirua
eta frogagiria **soraluzekomen-
ditaldea@gmail.com** helbidera bi-
dali edo mendi taldeko buzoian
utzi, ekainaren 20a baino lehen.



EMAITZAK

PILOTA

| | |
|--------------------------|----|
| Titin III - Eulate | 15 |
| Mtz de Irujo - Laskurain | 22 |
| Titin III - Goñi III | 8 |
| Mtz de Irujo - Laskurain | 22 |

AGENDA

PILOTA

Zapatua 7, 10:30ean
Kiroldegian

Umeen pilota txapelketako finala

Barixakua 6, 19:00etan
Logroñon (ETB1)

Titin III - Laskurain
Mtz de Irujo - Goñi III

Infantilak futbol 8ko txapelturno

DBHko 1 eta
2. mailakoek
Donostiako
Intxaurren
Infantilen F-8
Kopako finala
jokatu zuten.
7 eta 1 galdu
zuten partidua,
lehenengo bi
zatietan banakako
berdinketa izan
arren. Jasotako
kopa Txoko
tabernan dago.



**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

**GAZTELUPE
taberna**

tel: 943 75 20 81

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Josefina Pardo

BAR ESPAÑAN TXIKITEUAN

Kiroldegixa dagan lekuan zeguan Bar Española, “Correos” egon zan etxian aldame-nian. Josepa Antoni Ondarra zan jabis lehenengo; gero Rufinok eta Agarreburukuak hartu zeben. Afarixak-eta emoten zittuen eta ambiente demasa egoten ei zan. Kañoi fabrikatik gertu egonda gainera, langilliak biharretik urtendakuan hara jua-ten ziran asko txikiteora . 1974ko azaruan 18xan erre zan etxia.

Behian ezkerretik eskumara: Zangitu, Navarro eta Iñaki Makinai.

Goixan ezkerretik eskumara: Manuel Pardo, Jesus Zabala, Carlos Gurrutxaga, tabernarixa, Zabala aitta (Urramendi) eta Elizburu. ☺